

Aldirietako elkarrizketa

Egunero aldirietako tren hartzen dut lantokira joateko. Gehiengoa emakumeak* gara, langileak, pertsona arrazializatuak, prekarizatuak, gazteak, zaharrak. Nahiz eta aurpegi gutxi batzuek ezagutu, gainerako guztiak nolabait ere ezezagunak gara.

Atzo amona eta iloba bat nire atzean eseri ziren eta euren elkarrizketara erabat iltzatuta geratu nintzen. Senide baten dibortzioa zuten hizpide. Antza, ezkontidetako bat, hogeita hamar urte luzeetan, familiari dedikatua aritu da, etxeko lanetan, lan merkatuan murgildu gabe, dagoeneko gazte emantzipatuak diren bi pertsona hazi, elikatu eta zaindu. Besteak, ordea, etxetik kanpo beti, soldatapeko lanean bide oparoa egin du, ongi ordaindua den ardura lanpostu batera iritsita.

Amonak, arduratuta: "Baina zer egingo du orain berak bakarrik bizitzeko? Zeinek egingo dio janaria, arropa garbitu eta plantxatu, etxeaz arduratu? Eta besteak nola egingo dio aurre bakarrik dadeari, bizitzari, ekonomikoki lanik ez badu egin?". Iloba gazteak: "Onerako da, amona, bien erabakia da, batek etxeko gizona eta besteak plazandrea izaten ikasi beharko dute eta bide berriari askeago eta osatuago ekin". Amonak, zailantzez: "Denborak esango du".



Haizea Núñez Palacio

ABOKATUA

Zenbaitetan lanegunetan treneko joan-jinek liburu bati erantsita eraman naute. Gaur errealitateak nire lekuan jarri nau, eta hezur-haragizko materialtasun bihurtu dizkit zenbait irakurraldi

Trenetik jaitsitakoan lagun bati deitu nion entzun berria kontatzeko. Lagunak, bueltan: "Zertarako irakurri Marcela Lagarderen *Los cautiverios de las mujeres: madesposas, monjas, putas, presas y locas* edo Silvia Federiciren *Soldataren Patriarkatua*, eguneroko aldirietako tren bi-daietan errealitateak aurpegira botatzen badigu emakumeontzat* eta orokorrean

gizaki ororentzat patriarkatua eta kapitalismoaren ezkontza zapaltzailea dela?".

Zenbaitetan lanegunetan treneko joan-jinek liburu bati erantsita eraman naute. Gaur errealitateak nire lekuan jarri nau, eta bide batez, hezur-haragizko materialtasun bihurtu dizkit zenbait irakurraldi. Horrek zapo gazi-gozoa utzi dit. Gozoa, liburuan askotan euskarri hertsia eta erabatekoak leitu beharrean, testu irekiak eta bizitzarekin erlazioanatuak liseritu ditzakegulako. Gertatzen zaiguna ulertzeko laguntzen digutelako. Mintzen gaituena identifikatzen ahalbidetzen digutelako.

Gazia, treneko bidaiak gutxietan ematen dutelako elkar ezagutzeko eta elkar ulertzeko bidaiarion artean. Garaiotan indibidualizazio eta atomizazio prozesuak edo dena delakoak, askotan, begirada mugikorretik edo liburutik ez didalako altxatzen uzten. Ezezagun perfektuak bilakatu garelako, behin-betiko atzerritarak. Gazia, gehiegitan buruan daramadan galdera delako "zer gertatzen zaidan eta ez zer gertatzen zaigun?", horren txiki sentitzeko. Gazia, duela gutxi kontrakoa entzun arren, heteropatriarkatua kapitalismoaren oinarritzko zutabea dela frogatu zaidalako begi aurrean, enpirikoki, zalantzarik gabe. ■

